eaj pnv
zurekin
2026 Urtarrila
HONDARRIBIA



# HONDARRIBIA HOBE BATEN ALDE LANEAN

EAJ-PNV realiza una valoración crítica del gobierno de Abotsanitz. Las incoherencias con lo que predicaban son evidentes. Muchos de los logros que ahora reivindican han sido impulsados y gestionados desde el anterior mandato.



EAJ-PNVk bi urte hauetako gobernuaren balantze kritikoa egin du
02-03



Udal taldeak Hondarribiko egoeraren inguruan hitz egin du elkarrizketan
04-05

*Agintaldi erdiko balantzea*

# EAJ-PNVREN BALORAZIOA: LANEAN, HERRIAREN ALDE



*Bi urte hauetako gobernuaren balantze kritikoa egin, egindako lanen jatorria aurreko gobernuarena dela salatu, eta parte-hartzea, bizikidetza eta gardentasuna hutsik geratu direla nabarmendu du taldeak.*

EAJ-PNVk balorazio kritikoa egin du Abotsanitzek azken bi urte hauetan egindako kudeaketaz. Garai honetan gauzatu diren obra nagusien artean San Nikolas zubiaren berrikuntza, Arrantzale Auzoaren urbanizazioa, Santiago kalea edota Muliaten gizarte zerbitzuetarako gunea daudela azpimarratu dute. Obra horiek guztiak aurreko gobernuak proiektatu, aurrekontuetan sartu edo martxan jarritako ekimenak izan zirela gogorarazi dute.

EAJ-PNVk egindako lan horren ondorioz egin ahal izan dira. Parte-hartzeaz asko hitz egin arren, praktikan gobernuak ez du oposizioarekin elkarlanerako espaziorik sortu. Plan Orokorra edo Berdintasun Planaren prozesuetan oso argi erakutsi dute zein den benetako parte-hartze eredua: diskurtsoan bakarrik. Ez da inolako negoziazio-esparrurik eskaini, eta hala ere, babesa eskatu dute. Horrek erakusten du diskurtsoaren eta praktika politikoaren artean arrakala handia dagoela. Bizikidetzaren esparruan ere atzerapauso nabarmenak izan dira. Bizikidetza Batzordea, urte luzez alderdi guztiek elkarlanean jardun zuten espazioa, desegin dute. Gainera, Alardearen inguruan lortutako oreka haustea erabaki dute, urteetan pazientziaz eraikitako zubi guztiak hautsiz.

Orain desadostasuna nagusi da. Bestalde, gobernuak urteetan oposiziotik aldarrikatu zituen konpromisoak ez ditu bete: kiroldegian kudeaketa zuzen bat falta da, bidegorriek ez dute aurrera egin, ez da garatu aparkaleku planik eta zerbitzuen udal kudeaketa ez da martxan jarri. Etxebizitza arloan, alkatearen argazkiez harago, ez dago alokairurako laguntzarik ezta babes ofizialeko etxebizitza berririk ere.

Herria zikinago dago eta udalak jarrera permisiboagoa hartu du. Abotsanitzen diskurtsoa handia da, baina ekintzak, kasu askotan, aurreko gobernuaren lanari esker gauzatu dira. Horregatik, EAJ-PNVk jarraituko du oposizio sendo, arduratsu eta eraikitzailea egiten, Hondarribiak gehiago merezi duelako.

> **Diskurtso handiak entzun ditugu, baina errealitatea bestelakoa da: herriak gehiago merezi du eta guk lanean jarraituko dugu.**



# EL PNV DENUNCIA LA FALTA DE GESTIÓN REAL

*Los jeltzales han presentado una valoración crítica de los dos años de gobierno de Abotsanitz y denuncian que muchas obras son fruto de su anterior gestión.*

EAJ-PNV de Hondarribia ha presentado una valoración crítica de los dos años de gestión de Abotsanitz al frente del Ayuntamiento. Según ha denunciado el grupo jeltzale, muchas de las principales obras ejecutadas en este tiempo —como el puente de San Nicolás, la calle Santiago, la urbanización de "Arrantzale Auzoa" o el nuevo espacio de Servicios Sociales en Muliate— fueron proyectadas, presupuestadas o iniciadas por el anterior gobierno de EAJ-PNV. Todas estas han sido posibles gracias a ese trabajo previo, aunque el gobierno actual las presenta como propias. Aunque el discurso de Abotsanitz insiste en una nueva forma de gobernar basada en la participación, la realidad ha sido otra. En procesos clave como el Plan General o el Plan de Igualdad han demostrado cuál es su verdadero modelo de participación: el del discurso y el relato, no el de la práctica. No se ofrecieron cauces de negociación ni se fomentaron consensos amplios.

> **Mucho discurso, poca gestión. En estos dos años, lo construido se sostiene sobre lo ya hecho. Hondarribia merece más.**

En el ámbito de la convivencia, los retrocesos han sido especialmente graves. La Comisión de Convivencia, que durante más de una década fue un espacio de diálogo entre partidos, ha sido desmantelada. Y las decisiones tomadas sobre el Alarde han roto por completo el equilibrio alcanzado tras años de esfuerzo y acuerdos. Donde antes había puentes, ahora solo queda confrontación. Tampoco se han cumplido muchas de las promesas lanzadas desde la oposición: no hay gestión directa en el polideportivo, no se ha ampliado la red de bidegorris, no existe un nuevo plan de aparcamiento y los servicios de jardinería, limpieza o ayuda domiciliaria siguen externalizados.

En vivienda, más allá de fotos con constructores, no hay nuevas ayudas al alquiler ni reservas de suelo. El deterioro del espacio público y una actitud permisiva completan un panorama preocupante. Frente a este relato autocomplaciente, EAJ-PNV seguirá trabajando con responsabilidad, firmeza y propuestas reales. Porque Hondarribia merece más.



*Elkarrizketa*

## *Hondarribiko EAJ-PNV udal taldea*

# KONPONBIDEAK, EZ ZARATA

*Hondarribiako EAJ-PNV udal taldeak udal politikara jauzi egin zuen herriari benetako ekarpenak egiteko ilusioz. Elkarrizketa honetan, promesak bete gabe daudela salatzen dute, gardentasun eza kritikatu eta parte-hartze erreala eskatzen dute.*



Ander Ribes, Ainhoa Martinez, Borja Agueda, Gonzalo Carrión "Txalo", María Serrano eta Kalixa Silanes

**Zergatik eman zenuten udal politikara saltoa?**

*Ander*: Hondarribiko etorkizunari eta, bereziki, kultur-eskaintzari begira, ekarpenak egiteko aukera paregabea iruditu zitzaidalako. Orain, barrutik ikusita, ikuspuntua desberdina bada ere, erronkarako ilusioa ez dut galdu.

*Borja*: Gazteen ikuspegia falta zela uste nuen, eta nire ekarpena egin nahi nuen udal taldean eta Udaletxean.

*Ainhoa*: Pertsonen beharrak oinarritzat hartuz lan egin nahi nuen; proposamen errealista eta arduratsuak defendatuz.

**Hamar urte baino gehiago udaletxean egon ondoren, nola ikusten duzue agintaldi hau oposiziotik?**

*Kalixa*: Esperientzia eta egonkortasuna emateko ardura dugu, promesa asko betetzen ari ez diren testuinguru batean.

*Txalo*: Abotsanitzen zortzi urteko oposizio gogorraren ondoren, ikusten dugu gobernatzeak kudeaketa eskatzen duela, ez bakarrik kritikatzea. Eta hori nabaritzen ari da.

*Maria*: Lanean jarraituko dugu erabakiak zorroztasunez eta hiriaren etorkizunari begira har daitezen, ez inprobisaziotik.

**Zer izan da harrigarriena oposizioan lan egiten duzuenean?**

*Ander*: Arinegi egindako mila promesa betetzen ez dituztela ikustea. Herriak jokaera zintzoagoa merezi duela uste dut.

*Txalo*: Gardentasun falta handia dago: oposizioari ez zaio informazioa garaiz eta modu partekatuan helarazten. Hori ezinbestekoa da herri bat eraikitzeko.

**EAJ-PNVren zer ekarpen nabarmenduko zenukete bi urte eta erdi hauetan?**

Hirigintza eta etxebizitza arloan, egi deseroso baina beharrezko bat jarri dugu mahai gainean: HAPOrik gabe ez da etxebizitza publiko berririk egongo. Gure lana



**Hondarribiko herriak merezi duen seriotasunez jarraituko dugu lanean**

itxaropen faltsuak desmuntatzea eta plangintza eskatzea izan da. Zerbitzuen eta parte-hartzearen arloan, lehen zeuden — Bizikidetza Batzordea, esaterako — eta gaur egun desagertu diren elkarrizketa-guneak defendatzen ari gara. Parte-hartze erreala aldarrikatzen dugu, ez komunikazio kanpaina bat bestearen atzetik soilik.

**Zer da oposizioan egotea zailena?**

*Maria*: Sinplifikazioari aurre egitea. Gobernatzea ez da promesak egitea bakarrik: erantzukizuna hartzea da, eta erabaki bakoitzaren konplexutasuna ondo azaltzea.

*Kalixa*: Erabaki asko itxita iristen direla, ekarpenak egiteko aukerarik gabe. Oposizioak ere hiria eraikitzen du uzten bazaio.

**Bukatzeko, zerbait gehiago esan nahiko zenukete?**

*Ainhoa*: Hondarribiko herriak merezi duen seriotasunez jarraituko dugu lanean.

*Ander*: Herritarren babesaren beharra dugu gure lana ondo egiteko eta Hondarribiarentzat hoberena lortzeko.

*Borja*: Batzuek zarataren bidea aukeratzen duten bitartean, guk herriarentzat eta herritarrentzat benetako konponbideak proposatzen ditugu.

# EXPERIENCIA E INNOVACIÓN EN HONDARRIBIA

*El grupo municipal EAJ-PNV de Hondarribia dio el salto a la política municipal con la ilusión de hacer aportaciones reales al municipio. En esta entrevista denuncian el incumplimiento de sus promesas, critican la falta de transparencia y reclaman una participación real.*

**¿Por qué disteis el salto a la política municipal?**

*Ander*: De cara al futuro de Hondarribia y, especialmente, a la oferta cultural, me pareció una gran oportunidad para hacer aportaciones. Ahora, visto desde dentro, el punto de vista es diferente, pero no he perdido la ilusión por el reto.

*Borja*: Creía que faltaba la visión de los jóvenes y quería hacer mi aportación en el grupo municipal y en el Ayuntamiento.

*Ainhoa*: Quería trabajar desde las necesidades de las personas; defendiendo propuestas realistas y responsables.

**Después de más de diez años en el Ayuntamiento, ¿cómo veis este mandato desde la oposición?**

*Kalixa*: Tenemos la responsabilidad de aportar experiencia y estabilidad en un contexto donde muchas promesas no se están cumpliendo.

*Txalo*: Tras ocho años de oposición muy dura por parte de Abotsanitz, vemos que gobernar exige gestionar, no solo criticar. Y eso se está notando.

*María*: Seguiremos trabajando para que las decisiones se tomen con rigor y mirando al futuro de la ciudad, no desde la improvisación

**Tenemos la responsabilidad de aportar experiencia en un contexto donde las promesas no se cumplen**

**¿Qué ha sido lo más sorprendente de trabajar en la oposición?**

*Ander*: Ver cómo mil promesas precipitadas no se cumplen. Creo que el pueblo merece un comportamiento más honesto.

*Txalo*: Hay una gran falta de transparencia: a la oposición no se le transmite la información en tiempo y forma compartida. Esto es imprescindible para construir ciudad.

**¿Qué aportaciones del PNV destacaríais en estos dos años y medio?**

En el área urbanismo y vivienda hemos puesto sobre la mesa una verdad incómoda pero necesaria: sin PGOU no habrá nueva vivienda pública. Nuestro trabajo ha sido desmontar falsas expectativas y exigir planificación. En cuanto a las áreas de servicios y participación, estamos defendiendo espacios de diálogo que antes existían —como la Comisión de Convivencia— y que hoy han desaparecido. Reivindicamos una participación que sea real, no solo una campaña de comunicación tras otra.

**¿Qué es lo más difícil de estar en la oposición?**

*María*: Combatir la simplificación. Gobernar no es solo lanzar promesas: es asumir responsabilidad y explicar bien la complejidad de cada decisión.

*Kalixa*: Muchas decisiones llegan cerradas, sin posibilidad de aportar. La oposición también construye la ciudad si se le permite.

**Para terminar, ¿querríais decir algo más?**

*Kalixa*: Seguiremos haciendo una oposición firme pero constructiva.

*María*: Nuestra combinación de experiencia y renovación es una fortaleza para el municipio.

*Txalo*: Gracias a quienes confiáis en un proyecto de ciudad responsable y con visión de futuro.

*Albisteak*

# LAS DECISIONES DEL PGOU Y SUS EFECTOS REALES

En junio, EAJ-PNV votó en contra de la aprobación provisional del PGOU por considerar que se había tramitado con prisas, sin participación real y generando inseguridad jurídica. Los jeltzales comparten la necesidad de avanzar en materia de vivienda, pero creen que precisamente por su importancia el procedimiento debe ser impecable. El pleno de noviembre volvió a evidenciar estas deficiencias: el propio Ayuntamiento solicitó al Gobierno Vasco que informara ya sobre el proceso, y fue el Gobierno Vasco quien recordó que aún no era el momento, ya que antes debían resolverse todas las alegaciones presentadas. Hoy empezamos a ver las consecuencias de estas decisiones. Todo está relacionado: cuando no se respetan bien los tiempos y las formas, los problemas llegan después.





## TXIRRIN-TXIRRIN OPOSIZIOAN, ISILTASUNA GOBERNUAN

Gobernura iritsi aurretik bidegorrien aldeko aldarriak etengabeak izan ziren. Agintaldia aurrera doa eta ez da metro bakar bat ere eraiki, ezta dauden bidegorriak lotzeko proposamen zehatzik aurkeztu ere. Mendeluko bidegorriaz, Irun eta Hondarribia lotzeko aukeraz hitz egin da, baina orain arte urratsik ez da eman. Eskaera egitea erraza zen; gobernutik egitea, antza, ez hainbeste.



## APARKALEKUEN ARAUDIA BAI, BAINA PARTE-HARTZE ERREALAREKIN

EAJ-PNVtik uste dugu aparkalekuen arautzea beharrezkoa dela, baina ez dugu onartzen landu den modua. Ez da benetako parte-hartzerik egon: gobernuak enpresa batekin egindako proposamen itxia da, lehenik oposizioari aurkeztua eta orain herritarrei. Horrelako gai garrantzitsuetan, elkarrizketa eta elkarlana ezinbestekoak dira



## UN PLAN DE IGUALDAD QUE EXCLUYE EN LUGAR DE UNIR

EAJ-PNV ha presentado alegaciones al borrador del II Plan de Igualdad de Hondarribia por considerar que nace con un problema de parcialidad y exclusión. El documento discrimina a mujeres por razones ideológicas, especialmente en torno al Alarde, y propone reconocimientos que dejan fuera a otras víctimas. La igualdad no puede construirse desde una visión única ni ser en un factor de división.



## HONDARTZA KIROLDEGIA, ABOTSANITZEN UTZIKERIA ETA GALERA

Hondartza kiroldegia azken 30 hilabeteetan utzikeriaz kudeatu da. Abotsanitzek oposizioan egon zenean kritikatzen zuen, baina gobernuan egon ondoren, ez da ekintza berririk egin. Zerbitzu batzuk, hala nola sauna eta kafetegia, itxita daude, instalazioak, okerrago eta inbertsioak eta mantentze-lanak egin gabe. EAJ-PNVk kiroldegia benetako lehentasun bihurtzea eskatzen du, eta egungo gobernuari exijitzen dio proiektuak eguneratzea eta aurrera eramatea. Informazio falta, proiektuak ez egitea eta atzerapenak ez dute ezer konpondu. Kiroldegiaren etorkizuna argitu behar da, eta gobernuak erantzukizunak hartu. Jarduteko unea iritsi da.




## EAJ-PNVK 2026KO AURREKONTUEN KONTRA BOZKATZEKO ARRAZOIAK

EAJ-PNVk 2026ko aurrekontuen kontra bozkatzeko erabakia hartu du, proiektua ez delako errealista, parte-hartzaile eta herritarren eguneroko bizitza hobetzen ez duena. Gobernuari 27 proposamen zehatz egin arren, hauek ez ziren onartu, eta proiektu estrategikoak baztertu egin ziren. Aurrekontua, 34,9 milioi eurokoa, igoera handia izan arren, ez ditu herritarrei hobekuntzak ekartzen. Gainera, diru-sarrerak fiktizioak diren aurreikuspenetan oinarritzen dira, eta partaidetza urria da. EAJ-PNVk ezin ditu babestu aurrekontu horiek.



## EAJ-PNVREN PROPOSAMENAK HONDARRIBIAREN 2026KO AURREKONTUETAN

EAJ-PNVk 2026ko udal aurrekontuetan proposamen zehatzak aurkeztu ditu, herritarren beharrei erantzuteko. Etxebizitzaren arloan, gazteentzako alokairu-laguntzak eta etxebizitza publikoko sustapenak proposatzen dira. Mugikortasuna hobetzeko, hiri-autobusaren geltokien egokitzapena eta bidegorri gehiago garatzea aurreikusi da. Ekonomian, merkataritza eta lehen sektorea indartzea eta udal zerbitzuak hurbiltzea proposatzen da. Aisialdian, kirol instalazioak hobetzea eta kultura ekintzak bultzatzea azpimarratzen dira. Hondarribia bizigarri, seguru eta dinamikoago egiteko ekimen hauek guztiek herritarren benetako beharrei erantzuten diete.



## ABOTSANITZEN ERABAKIEK HONDARRIBIAN ERAGIN DUTEN KRISIA

EAJ-PNVk argi utzi du Abotsanitzek hartu zituen erabakien ondorioz, Hondarribiak 14 milioi euroko demanda jaso duela. 2025eko ekainaren erabakiak ideologikoak eta juridikoki okerrak izan ziren. Abotsanitzek ez zuen entzun EAJ-PNVk emandako ohartarazpenik eta aldaketa batzuek hondarribiarren ondarea arriskuan jarri zuten. Orain, Abotsanitzek EAJ-PNVri errua botatzen dio, baina egia da beraiek izan direla egoera honen eragileak. Talde jeltzaleak erantzukizuna eta benetako informazioa ematea eskatzen du, Hondarribia ez duelako merezi politika manipulatzaileen menpe egotea.

*Manifestua* • *Manifiesto*

# EUSKAL KONPROMISOA MUNDUKO BAKE ZUZEN BATEN ALDE

*Bakearen Nazioarteko Eguna dela eta, 2025eko irailaren 21ean aurkeztua*



Sudan, Yemen, Myanmar. Kongo, Etiopia, Sahel, Nigeria, Somalia, Siria, Afganistan, Sahara, Armenia, Ukraina, Gaza... Gerrak edo gerra-erasoak sufritzen ari diren hamalau lurralde.

Badira beste batzuk, baina horietan dira egoera larrienak nazioarteko begiraleen arabera. Gaur, Gazak eta Ukrainak lehentasunez interpelatzen gaituzte europar gisa. Basakeria bukatzen ez den artean, honako posizio hauek bizirik mantenduko ditugu:

**Kondenatzen dugu:**

- Errusiaren inbasioa Ukrainan, milaka biktimarekin hiru urtean.
- Hamasen atentatu terrorista, 2023ko urriaren 7an, 1.200 biktimarekin.
- Gaza eta Zisjordaniaren aurkako genozidioa, 70.000 biktima baino gehiago bi urtean.

**Exijitzen dugu:**

- Netanyahuren gobernuari, Palestinan egiten diren eraso bortitz guztiak bertan behera uzteko eta Gazako herritarrei laguntza humanitarioa erabat eskuratzeko bermea emateko, eskatzen diogu.
- Putinen gobernuari, Ukrainako lurraldearen inbasioaren amaiera.

**Presatzen dugu:**

- Europar Batasunari eta NBEri, neurri irmoak eta nazioarteko bitartekaritza bultzatzeko.

**Euskadin konpromisoa hartzen dugu:**

- Gerraren, terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen bidegabekeriari buruzko memoria kritikoa egiteko.
- Giza eskubideen unibertsaltasuna eta eraso beliko eta bortitz guztien biktimekiko bakearen, justiziaren, bizikidetzaren eta elkartasunaren kultura defendatzeko.



**MANIFESTUA OSORIK**
**MANIFIESTO ÍNTEGRO**



# COMPROMISO VASCO POR UNA PAZ JUSTA EN EL MUNDO

*Presentado con motivo del Día Internacional de la Paz, el 21 de septiembre de 2025*

Sudan, Yemen, Myanmar, República Democrática del Congo, Etiopía, Sahel, Nigeria, Somalia, Siria, Afganistán, Sahara, Armenia, Ucrania, Gaza... Catorce escenarios azotados por guerras o agresiones bélicas.

No son los únicos, pero si los más graves según los observatorios internacionales. Hoy, Gaza y Ucrania nos interpelan con prioridad como europeos. En tanto no cese la barbarie, mantendremos vivas las siguientes posiciones:

**Condenamos:**

- La invasión rusa de Ucrania, con decenas de miles de víctimas en tres años.
- El atentado terrorista de Hamas, el 7 de octubre de 2023, con 1.200 víctimas.
- El genocidio contra Gaza y Cisjordania, más de 70.000 víctimas en dos años.

**Exigimos:**

- Exigimos al Gobierno de Netanyahu el cese de todo ataque violento en Palestina y la garantía del pleno acceso de la ayuda humanitaria a la población de Gaza.
- Al Gobierno de Putin, el fin de la invasión sobre territorio ucraniano.

**Urgimos:**

- A la Unión Europea y a la ONU a impulsar medidas firmes y mediación internacional.

**Nos comprometemos en Euskadi**

- A una memoria crítica sobre la injusticia de la guerra, el terrorismo, la violencia y las vulneraciones de derechos humanos.
- A defender la universalidad de los derechos humanos y una cultura de paz, justicia, convivencia y solidaridad con las víctimas de todas las agresiones bélicas y violentas.

# MENSAJE QUE COMPARTIMOS CON LAS PERSONAS MIGRANTES

En Euskadi contamos con el Pacto Social Vasco para la Migración, con el que el PNV se identifica plenamente. Su título es “Ofrecer lo que desearíamos recibir”.

Somos un pueblo que ha necesitado migrar. Muchos de nuestros antecesores tuvieron que hacerlo por motivos políticos o económicos.

Hoy, llegáis a Euskadi de Sudamérica, Magreb, África, Europa del este y otras latitudes. Os damos la bienvenida. No solo es una palabra de cortesía.

Nuestra bienvenida es un compromiso. Queremos que Euskadi ofrezca condiciones dignas y justas de acogida e inclusión en igualdad de derechos y obligaciones.

Tenemos una identidad y un idioma propio, el euskera, y quisiéramos que las hicierais vuestras. Somos una nación, Euskadi y tenemos un proyecto político nacional que queremos que compartáis con nosotros.

La sociedad vasca necesita la inmigración para responder a sus propias necesidades laborales y demográficas. Vuestra contribución es valiosa.

En definitiva, creemos en un compromiso ético y compartido que apela a la solidaridad y la convivencia.

*Nota: este mensaje es una actualización de otro, con un espíritu similar, publicado en diciembre de 1971 en el órgano del PNV, “ALDERDI”*

*Zaldunborda*

# ABOTSANITZ MIENTE CON ZALDUNBORDA PARA TAPAR SU INCAPACIDAD




EAJ-PNV de Hondarribia condena de forma rotunda las acusaciones lanzadas por Abotsanitz, en las que se atribuye al PNV un supuesto "modus operandi" para lucrarse desde las instituciones públicas. No estamos ante una crítica política, sino ante una acusación muy grave de corrupción dirigida contra un partido entero y contra muchas personas honestas.

**Quien acusa de corrupción tiene la obligación de aportar pruebas. Abotsanitz no aporta ninguna**. No existe ninguna sentencia, investigación judicial ni informe oficial que avale esas afirmaciones.

Las explicaciones ofrecidas a través de un artículo de NAIZ y GARA promovidas por el propio Ayuntamiento relatan una falsedad al más puro estilo Abotsanitz.

Estas acusaciones llegan, además, en un momento muy concreto: **cuando el Ayuntamiento de Hondarribia se enfrenta a una demanda de 14 millones de euros derivada de una decisión adoptada por el actual gobierno municipal de Abotsanitz y Bildu en junio de 2025**. Desviar el foco con ruido, populismo y mentiras no les va a eximir de la responsabilidad política.

Una vez más, Abotsanitz ha decidido cruzar todas las líneas rojas, enrareciendo deliberadamente el día a día de Hondarribia. Y cabe preguntarse qué buscan con esta forma de hacer política. ¿Se sienten cómodos únicamente en el conflicto permanente? ¿Necesitan este ruido constante para tapar la falta de gestión y de resultados? ¿O para evitar dar explicaciones sobre decisiones que han puesto en riesgo millones de euros del patrimonio municipal?

Porque cuanto más sube el ruido, más evidente resulta que no se quiere hablar de lo verdaderamente importante: **de qué se está haciendo —o no se está haciendo— por Hondarribia y de por qué hoy el Ayuntamiento se enfrenta a una reclamación millonaria.**

Si Abotsanitz persiste en este tipo de afirmaciones sin respaldo alguno, el EAJ-PNV se reserva el derecho a estudiar las acciones oportunas para defender la honorabilidad de sus afiliados y cargos públicos. No todo vale en política.

Desde EAJ-PNV queremos señalar que los ataques personales no tienen como verdadero objetivo a una persona concreta, sino al partido en su conjunto, algo que lamentamos profundamente y que genera un notable malestar en nuestra organización.

## LA ACTUACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA EN ZALDUNBORDA-GAINA

La cuestión fundamental es si el Ayuntamiento de Hondarribia actuó de manera irregular, alegal o ilegal en la tramitación del proyecto del outlet por la circunstancia de que una persona concreta se encontrara "al otro lado". La respuesta es rotundamente no. **El Ayuntamiento actuó siempre conforme a la legalidad, convencido de que se trataba de un proyecto positivo para la ciudad, que contemplaba la creación de más de 600 puestos de trabajo**. El proyecto no salió adelante debido a la falta de apoyo, a la aprobación de la Ley de Grandes Establecimientos Comerciales y, finalmente, a la anulación del Plan General. De haberse producido cualquier actuación irregular, esta habría sido judicializada, cosa que no ocurrió.

Asimismo, conviene aclarar que la parcela de Zaldunborda no fue recalificada para el outlet. **Dicha parcela fue adquirida inicialmente por Servicios de Txingudi con el fin de ubicar una incineradora**. Al descartarse esa opción, **la Mancomunidad solicitó su recalificación como suelo de "actividad económica"** para poder recuperar la inversión realizada. Esta recalificación se produjo muchos años antes de que se comenzara a hablar del proyecto del outlet.

Por último, EAJ-PNV de Hondarribia recuerda que **el Ayuntamiento vendió la parcela a Higertoki mediante un concurso público, un proceso que además fue auditado** con el objetivo de garantizar que el resultado fuera el más beneficioso posible para el interés general.

Para EAJ-PNV, el enfrentamiento permanente no es un proyecto de ciudad. La política del barro no construye nada. EAJ-PNV de Hondarribia reitera su compromiso con la transparencia, la legalidad y la defensa del interés público, y seguirá trabajando con responsabilidad y rigor al servicio de la ciudadanía.

El PNV no va a entrar en esta guerra de reproches. Quien decide abrir ese camino debería reflexionar muy bien sobre las consecuencias de convertir la política municipal en una utilización interesada del pasado, en lugar de centrarse en gestionar, dar explicaciones y ofrecer soluciones a la ciudadanía hoy.

# Etorkizun desberdina **Gipuzkoa**rentzat

## EUSKAL EREDUA

EAJ-PNVren ereduak oinarri du: autoexijentzia, nazio-anbizioa, akordiorako borondatea, errespetua, errealismoa, apaltasuna eta erreforma-bokazioa.

## NORTASUNA

Herri nortasunak eta etorkizunak bultzatzen gaitu. Euskal gizartea osatzen duten pertsona guztien beharrei aurrea hartu eta erantzuteko konpromisoa dugu.



## OINARRI SENDOAK

Bokazioz inkonformistak gara. Herri honekin konprometituta gaude eta etengabeko eraldaketan sinisten dugu.

## HOBEKUNTZA

Elkarlanean Euskadi hobe bat eraiki nahi dugu. Batu zaitez zu ere!

**Gipuzkoan EAJrekin elkarlanean aritu nahi baduzu, idatzi mezu elektroniko honetara**
Si quieres colaborar con el PNV en Gipuzkoa escríbenos a este correo electrónico:

iritziak@gipuzko.eus

*Zure iradokizunak* **bidali eta**
**gurekin** *harremanetan* **jartzeko**

**GIPUZKO BURU BATZAR**

*Jarrai gaitzazu sare sozialetan eta bilakatu gure komunitatearen parte!*

eajpnvgipuzkoa

EAJPNVGipuzkoa

eajpnvgipuzkoa

eajpnv.gipuzkoa

iritziak@gipuzko.eus

www.gipuzko.eus

**Hondarribia**

EAJ-PNV Hondarribia

hondarribiaeajpnv

hondarribia.eajpnv@gmail.com

www.gipuzko.eus/es/hondarribia